# Ikasgunea. Familientzako eta  ikasleentzako zerbitzuak.

Atari honetan (https://ikasgunea.euskadi.eus), Hezkuntza Sailak ikasleei eta bere familiei daukan informazio akademikoaren sarbidea ematen die, hiritarren eta administrazioaren arteko interrelazio gisa balio dezakeen komunikazio kanal bat emanez.

Atariak, alde batetik, izaera publikoa duen informazioa erakusten du, honetan sartzeko ez da beharrezkoa izena ematea. Bestalde, izaera pribatua duen informazioa dago eta, honetan sarbidea izateko, atarian erregistratuta egon behar da.




## 1. Identifikazioa

Identifikazio eta erregistro orrialdetik erabiltzaileak, bere ***helbide elektronikoa eta pasahitza*** erabiliz Atariko datu pribatuen gunean sar daiteke.




Lehen sarreran aurrez sartutako telefono zenbakia baliozkotzeko eskatuko du. Ezin izango gara sartu telefonoa balioztatu arte.

Balioztatu botoia sakatu ondoren helduko zaigu sartutako zenbakira sei digituko zenbakia. Pantaila bat agertuko da eta han sartu behar izango dugu jasotako kodea.

## 2. Nire kontua

Erregistratutako helbide elektronikoa eta pasahitza sartuz gero, erabiltzailea hurrengo pantailara sartuko da, hemen seme-alabaren informazioa (legezko tutorearentzat) edo bere informazio propioa erakutsiko da (identifikatu den pertsona ikaslea bada).




### 2.1. Espediente akademikoa

"Espediente akademikoa" menuaren barruan hurrengo atalak aurkitzen dira:

Espediente akademikoa, Ziurtagiriak, Unibertsitatez kanpoko tituluak, euskarako salbuespenak eta Unibertsitatez kanpoko atzerriko ikasketen homologazioak.




Atal horietan guztietan, atal bakoitzari dagozkion dokumentuak deskargatzeko aukera dago, "Deskargatu" botoia sakatuz, lehenengo aldia bada. Edo geziaren botoiari bitartez, aldez aurretik sortu bada.

### 2.2.1. Espediente akademikoa eta ziurtagiriak

Espediente akademikoa kontsultatzeko  eta ziurtagiri akademiko desberdinak deskargatzeko aukera ematen du.




### 2.1.2. Unibertsitatez kanpoko tituluak.

Atal honetan ikusi eta deskarga daiteke ikasleak lortutako unibertsitatez kanpoko tituluak.



## 2.1.3. Euskarako salbuespenak (B2)




# 3. Erregistroa

Atariko identifikatzeko eta erregistratzeko orrialdetatik kontua sortzeko klik eginez erregistratzeko prozesuan sartzen da.




Identifikazio dokumentuaren mota. NAN/AIZ, egoitza baimena edo HNA erabili daitezke.

- NAN/NIE edo egoitza baimena ez baldin badute, erabiltzailea ikastetxera joan behar da HNA eskatzera (Hezkuntza Nortasun Agiria).
- NAN dokumentuaren iraungitze data eta jaiotze data jarri behar dira.
- Egoitza baimena edo HNA aukeratzen denean izena emateko, ez du iraungitze data edo
    - Adindunak bere legezko tutoreari bere informazioa ikusteko baimena eman die.
- Egiaztapenaren testua irakurtezina denean, "refresh captcha" botoia sakatuz ( ) irudi berria sortuko da.
- Emandako datuak errealak direla eta ez dagoela beste pertsona baten lekua hartzen baieztatu behar da.

**"Jarraitu"** eman eta gero egoera hauek eman daitezke:

- Pertsona ondo identifikatu egin da eta datuak hurrengo pantailan agertzen dira.

edo

- Erregistroak errorea ematen du eta Atariak honen inguruan informazioa erakusten du:
- Sartutako datuak ez dira zuzenak. Berrikusi dokumentuaren zenbakia zuzena dela, baita jaiotze-data eta iraungitze-data ere.
- Ikaslea adinduna da eta ez dauka bere datuak ikusteko baimenik.
- Bere datuak ez datoz bat ikasle baten tutore bezala.
- Bere datuak ez datoz bat ikasle bezala.
- Ez dago sistema akademikoan erregistratuta.
- Errorea orokorragoa bada sistemak hurrengo mezua erakusteko du:
- Sisteman akats bat gertatu da. Saiatu geroago.

Behin datuak baliozkotuta daudenean, hurrengo pantaila agertuko da pertsonaren datuekin.

Erabiltzaileak ezin ditu aldatu grisez agertzen diren datuak.